

Si te pasan
de 20 a 30 gigas
sin subir el precio,
se nota.



Descúbrelo

0:20 / 0:

2024 URT. 24

Arina, usaintsua eta bizia... Bizkaiko sagardo denboraldi berria Itziar Lazkano aktorearen eskutik hasi da

GARA
BILBO






Atzoko ekitaldiko argazkia. (BIZKAIKO SAGARDOGILEAK)

Bizkaiko sagardo denboraldiari hasiera emateko ekitaldia egin zuten atzo Amorebieta-Etxanoko Uxarte sagardotegian. Itziar Lazkano aktore eta antzerki zuzendariak izan zuen aurreneko tragoa hartzeko ohorea.

PUBLICIDAD



Amorebieta-Etxanoko Montorra auzunean, 400 urte baino gehiago dituen baserrian, eman zitzaion hasiera Bizkaiko sagardo denboraldi berriari. Bizkaiko Sagardogileen Elkartek zehaztu zuenez, «2023ko uzta berezia» izan da, urriko tenperatura epelek aurreikusten zena baino sagar gutxiago biltzea eragin zuelako. Fruitua ohi baino lehenago heldu bazen ere, beranduago biltzea erabaki zuten sagardogileek, hasierako aleek nahi baino azukre gutxiago zutelako. Hala eta guztiz, 100.000 litro sagardo natural ekoitzi dituzte lurraldean, espero baino gehiago.

«Upelak gure sagardoarekin beteta daude, eta honen ezaugarriak oso markatuak eta biziak dira», nabarmendu zuen Jose Antonio Zamalloa Bizkaiko sagardogileen presidenteak. Azaldu zuen bi urte atzera ekoitzi zen sagardoaren antza duela aurtengoak. lazkoa baino arinagoa da, usaintsua da, eta alkohol graduazio baxuagoa du (%6koa).

Aurtengo sagardo denboraldiko enbaxadorea Itziar Lazkano aktore eta antzerki zuzendaria izango da; berak jaso zuen Sagardoa Laguna izendapena.

«Niretzat ohorea da, eta nahiz eta denbora asko kentzen didaten proiektuetan sartuta nagoen, ezin nion ezetzik esan Bizkaiko sagardogileen proposamenari», esan zuen ekitaldian. Besteak beste, Estibaliz Urresolaren “20.000 especies de abejas” pelikulan lan egin du Lazkanok, eta “Egun zoragarriak” antzezlanarekin estreinatu berri du.



PUBLIZITATEA



PUBLIZITATEA

Zer kontatu genuen gaurko egunez?

ARTEFAKTUA

1977 ETORKIZUNA
1999 EGUNIK
2024 EGUN





ZUNTZA MUGIKORRA TB

Klikatuenak



La expectativa sobre EH Bildu crece 20 puntos en ocho meses 🔑



Contundente varapalo a la gestión de PNV y PSE durante la última década 🔑



Estallan el Challenger y la relación de Urkullu e Ibarretxe 🔑



Pello Otxandiano aboga por un «giro copernicano» en política económica 🗝



Israel amenaza con arrasar hasta Rafah y avisa con bombas a la UE 🗝
